IPUIAK



JAUREGI ta ETXENAGUSIA'taŕ LUIS

M- 72675
F- 76618

AV
32713

ARGIA'ren idaztiak

JAUREGI ta ETXENAGUSIA'taf LUIS

IPUIAK

I. Erein maitasunez.
II. Urkamendi.
III. Eŕamon gudaria.

DONOSTIA
Loyola'taf Iñaki Deunaren irafkola. — Garibay, 28
—
1924

Nere guraso maite-maiteeŋ
seme-maitasun-ageŕkayaz.

EGILEAK

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

Itzaurea

Gauŕ eldu zaizu, euskalduna, zure eskuetara aspaldian nai zinuan bezalako idazti edo liburua. «¿Nondik nai nuana?—esango dezu—ez bai nuan ezagutzen ere?» Ala ere zuk nai zenduana dala, esango dizut. Zuk, zerpait beŕi, ondasuntsu ta atsegingaŕi dakaŕen euskerazko liburua etzenduan nai ba? Oŕa, ba, nai zenduana.

Euskeraz dagoalako, ez uste izan gero oŕi oritu ta zimelduen batzuek dituanik. Landare beŕi gazte ta mardul, bizitza oparo dariona da, lora-ontzi batean bezela ipinirik, liburutxo onetan dakartzudana.

Gazte kementsu, langile, pizkoŕ batek gauŕ atera ditu bere lorategi ugaritik euskaleŕiari es-

keintzeko. Orain baño len, pozaren-pozez bere lorategitik artutako loretxoen bat edo beste auferatu dizkigu euskaldunoi, bai Irugarengo Prantzisko'tarra'n *baita ere* Zeruko Argia'n; *eta azken aldi ontan* ARGIA'n *ere bai.*

Baño alako loretxuak eskuetara giñuzen guztiok, aren gauza polītak sortzen zituan lorategian sartzeko gogoz betetzeko besterik etziran. Sudurretaraño lorea, edo ezpañetaraño eztia eraman eta ura gabe uzten duana bezela uzten giñuzten aiek.

Ur garbi, otz eta ago onekoa egariz dagoanak arapatzean, ez luke bereala utzi nai; bī edo iru edanaldi on samarak nai lituzke.

Gaur Jauregi'tar Luis'ek eskuetara ematen dizun kutun ori ar zazu, ba, ta oren lorategiko edergariak poztuko dute zure biotza ta zure aspaldiko egaria alditxo bateko iīo ere bai.

Or dezu, ba, euskalduna, gure euskal iturriak ematen duten urik garbienetakoa. Euskera garbi, baño eraza. Euskal esanera berarizkoa ta eritara; baño irudimen bizi ta sutsuak biziaz betea.

Iru sailtxo ditu liburu edo idazti onek. « Erein maitasunez », izena duan ipuitxoa bat.

Muxika'tar Gergori jaun idazle bikain eta Euskaleriaren alde'ren *Zuzendariak erderaz egiña ta « Certamen nacional de Ahorro »'koan saritua. Bigarena « Urkamendi » deitzen dan ipuitxoa ta irugarena « Eramon gudaria ».*

Azkeneko biak irakurtzean Iturralde ta Suit edo Kanpion arrigarriaren idaztitxoen bat irakurtzen ari gerala deritzaigu ta aiek erderaz bezin idazle bikain eta ugaria ikusi bear degula gure onetan amets egiten degu. Bekigu Jaunak!

INTZA'r DAMASO A.

EREIN MAITASUNEZ

(Muxika'taŕ Gergori jaunak erderaz egin eta *Certamen Nacional del Ahorro*'k saritutako ipuiña.)

(Jauregi'taŕ Luis'en euskeralpena.)



Erein maitasunez

Ipuiñaren gertaketa, loretegian, eguzkiaren izpi beroak uxatzen ditun ofi ugaridun zugaitz baten kerizpean gertatzen da.

Amak, Mirentxu edefa, zerutik jetxiko aingerutxo polita bere magalean dauka. Martintxo orpo-gañean exerita dago, bere begirakun garbia amaren ezpaiñetatik zintzilik daukala dirudila. Efaimun belaf-gañean etzanda, gozoki lo dagon bere adiskide mamia, zakufa lastantzen.

Zortzi urte ditu Efaimun'ek; Martintxo'k sei; lau Mirentxu'k.

Ama gaztea ta ona, bere semeentzat irakasle onenetatik onena da. Maitasunez erakusten die berak; jolasean, befiz, ikasi oi dute ayek.

—Polifa ¿e? Polifa izan dedila gero, amatxo.

—Bai, noski; bañan aufez-aufetik gauzatxo bat oarfu nai nizuteke.....

—¿Zer?

—¿Zer?

—¿Zer, amatxo?

—Polita izango dala ipuiña. Bañan polita ez ezik gauzik asko efakutsiko dituana.

—¿Ze gauz, ama?

—Zeok esango dizkiazute gero. Nik edestuko (kontatuko) dizutet ipuiña ta ipuintxoak zer era-

kutsi dizuten iruoi gero galdetuko dizutet. ¿Nai al-dezute?

—Bai.

—Bai.

—Bai. Bañan poliki-poliki ezan gero, amatxo, azkaŕ esaten ba-dezu ez det nik ikasiko-ta.

—Poliki edestuko det, baña zuek ere ordez ixilik eta geldik egongo zeratela itz eman bear didazute. ¿Ez da, ala?

—Bai, bai, bai.....

—Entzun, bada, adi-adi. Bein batean, eŕi baten soroetan zoritzen ari zan gari guzi-guzia ondatu zuan eri bat sortu zan. Ez zan gari-buru bat ere osorik gelditu.

—¿Galdera bat egiten utziko, ama?

—¿Zer?

—¿Ta etxeetan gordeta zeukaten beste urteetako garia ere ondatu al-zan?

—Ez zan alerik ere mandiotan. Uztak ugaritsuak zirala-ta, ez ziran nekazariak urte batean besteerako garia gordetzen sayatzen. Argatik eriaren ondoren eŕi osoan gari-ale bat ere ez zutela aŕkitu ziran nekazariak.

—¿Bat ere ez?

—Baña ¿bat ere ez?

—Ez da bat ere. Eta eŕiko gari guztia galdu zuan gaxotasun aŕek, auzoko eŕietako garia ere ondatu zuan. Ta gure eŕiko nekazariak ezin iñundik garirik ekaŕi izan zuten: eta ereiteko

garaya etoŕi zitzayenean gari-alerik ere ezin berenganatu zutela arkitu ziran. Ez zuten, beraz, geyago uztarik izango, ogirik ere ezin jan izango zuten auŕerontzean.....

—¿Ta nola azkalduko (meriendatuko) zuten umeak?

—Ogirik ezin jan izango zuten, beintzat.

—Nik bidaliko diet nire azkaria (merienda, ama...

—Ipuiña da-ta, txorua...

—Negaŕ ta negaŕ zegiten eŕian guziok, ogirik gabe gaizki biziko zirala-ta. Otoitz-egiten zuten, asaŕatzen ziran, makiña bat oldoztu (pentzatu) ere bai. Baña iñundik gaitzari zuzen-biderik arkitzen ez. Umeak ogi eske ta gurasoak eman ezin.

—¡Eŕukitzen naute, ama!...

—Ipuiña da-ta, txorua!...

—Ba-ziran eŕi artan, oso aizkide ziran bi ume: Iñaki ta Mikel. Mendi batera juan ziran batean, jaun luze, bizaŕ zuri, agure bat agertu zitzayen. iñaki ta Mikel piskatxo bat ikaratu ziran. «Ez ikaratu—esan zien samuŕkiro agureak—zuek bezela onak diranak ez dute ezergatik ikararik izan beaŕ. Ez natoŕkizute gaitzik egitera; gauzatxo bat ematera baizik. Baña, ¡au lana!... bi izaki zuek, ta txit onak biok, ta nik eŕegalo bat besterik ez. Etzakiat iri, Iñaki, ala iri, Mikel, eman».

—Ze eŕegalo zan, ama?

—Ixilik, orain dago p:liīenean-eta.

—Orixe bera, galdetu zioten umeak agureari. « Ta ze eŕegalo dakaŕkiguzu, ba? » Zabaldu zuan agureak eskoiko eskua biatz-aŕtean gauza txiki-txiki bat zuela, ta esan zien: « Auxe ». Ta gari-ale bat erakutsi zien. « ¡Azeko gauza!—esan zuan Mikel'ek—emayozu oneri nai badezu ». « Nai al-dek, Iñaki? »—galdetu zuan agureak.—¡Ez det, ba, naiko: ¡bai noski! »—« Artzak, ba ».—Ta eman zion.

—Ta ¿gero zer, ama?

—Uztayok poliki-poīiki edesten, polita dek-eta, ikasi nai diat-eta.

—¡Mikel'en jolasak, Iñaki'k gari-alea aŕtu zualako! « ¡Aze ogi gozoak egingo deken ale oŕekin! ¡Bukatu dek, i aizela bide, eŕiaren ogieza!... ¡Gora Iñaki! ogi-opiīak ba-dizkigu-ta ». Iñaki, beŕiz, irifaŕez eta ixilik. Uŕengo egunean, goiz-aldean bere soro batera juan zan; atxuŕaz zerbait luŕa jo, gari alea sartu eta txoriak urbildu ez zitezen kañabera ta lokaŕiz esi bat egin zuan. Lore gaxo bat bezelaxe zaitu zuan bere uraxe egunetik-egunera. ¡Ura bere poza, udaberian luŕean belaŕtxo bat irten, aunditu ta aunditu... ta gari-buru mardula egin zanean... eta gero uŕe-antza aŕtu zuanean! Ez zuan gure Iñaki'k, eguzkiak jota uŕe antzera goŕitutako gariburutxo uraxe, ludi guziko uŕeagatik ere, truka-

tuko. Ta uŕea berbera lez garia goŕitu zanean, bere amaren guraizeaz gari-burua mostu, jaŕi esku-taŕtean burutxo aŕo ura, aleak sendoro maŕuskatu eta burutxoa aletu zan. Zabaldu zuan orduan gariz eta lastoz betetako bere esku ura ta aize egin zion... Egaka juan ziran lastotxoak, eskuan beŕiz uŕe-antzeko gari-ale gizenik asko gelditu zitzaizkion. ¡Aren poza! Amaika bider ainbeste ta ainbeste gari ikusi zuan mutila, lilu-ratuta bezela zegoan orain, bere ale mordoska-txoari begira ta begira... Jakingo dezute noski, beti izan oi duala zertaz itz-egiña pozik dagoa-nak eta bere poza besteei adi-erazi aŕteko onik ez duala. Iñaki'k aŕezkero Mikel'eri bere gariaz ezer esan ez ba-zion ere, orain gertatu zitzayona beintzat adi-erazi zion, alegia, beŕogeita amaŕen bat ale ba zituala... Mikel'ek paŕari ta isekari eman zion beŕiro ere. « Aze ogi-jateak egin beaŕ dizkiagun »—esan zion isekaz.

—¡Azeko masalekoa emangon nion nik Mi-kel'eri, ni Iñaki izatera.

—Ta bestea nik.

—Ea, enetxuak!... Uŕengo urtean Iñaki'k be-ŕogei ta amaŕ ale ayek erein zituan, eta beŕogei ta amaŕ gari-buru izan zituan; beŕiro ere bere ale guziak erein eta urte gutxiren buru bere soro aundi osoa uŕe-antzadun gari-buruz josi zan. ¡Uŕe-soroa zirudian berak! Ba-zan antxe eŕi osoak jan eta ereiteko aña gari, noski. Banatu

zuan Iñaki'k eŕi-taŕen aŕtean bere garia, ta eguzkiak soro guziak maiteki jotzen zitualarik, guziontzat soritu ziran gari-buruak ugari. ¡Ura gariaren emana, izan ere! Aingeruen eskua an ibiĩi zala, zirudian. ¡Mutil eta neskatilen abestiak, gari-ebakitzerakoan! ¡Atso ta agureen abestiak, garia bere azal-zoŕoetatik bereixterakoan! Ogia ba-zutela-ta, umeen abestiak! Antxe zebiltzan txoriak ere, soroetan abesten, jo batera ta jo bestera, an-emen gari-aleak jaten, guziontzako garia ba-zala-ta, iñork uxtatzen ez zituztela...

—¡Ederki, ederki!...

—¡Gora, gora!...

—Ara ba: ez zan Mikel'entzat ezer gari-aletxo bat eta argatik ez zuan aintzakotzat aŕtu nai izan. Iñaki'k, ostera, gari ale orixe ber-bera bide zala, bere eŕikoei zoriondasuna ekaŕi zien.

—¡Bai polita!...

—¡Ederki, ederki!...

—Bai polĩta, amatxo, bai polita dala! Ikasi det. Ara...

—Itxoin, itxoin... ¿Ondo aditu al-dezute?

—Bai...

—Bai...

—Bai...

—Ea, ba.

—Nik lendabizi.

—Nik, nik...

—Nik ere bai...

—¡Ixo, ixo!... Ea, ik, Eŕaimuntxo, zaŕena aizen oŕek. ¿Zeŕ ikasi dek ipuiñaz?

—¿Nik? Zea... ergel eta kirten batzuek besterik ez zirala eŕi artan bizi ziranok, gari asko biltzen zuten urtean, noiz-edo-noiz uzta ondatu litzayekela-ta (egin zitzayen bezela), beste urteetarako zerbait gorde beaŕean, ezeŕtxo ere gordetzen ez zutelako.

—Edeŕki. Beste erara : ergelak zirala auŕeztenez zutelako, ¿ez da ala?

—Ta ¿zeŕ da auŕeztu, ama?

—Auŕeztu, ene kutun ori, asko irabazten daneaŋ, ezer irabazten ez danerako piska bat gordetzea da. Ainbeste ta ainbeste gari urtero biltzen zuten gizon ayek, pitin bat gorde izan ba-zuten, eŕiak uzta ondatu zienean ere, garia ereiten jaŕai zezateken, eta ez zuten ala eŕikoak goserik izango. ¿Ez da, ala? Beaŕ-beaŕezkoa ez zayona gordetzen duanak, antxe arkituko du beaŕ-beaŕezkoa zayon garayan. Zuzen dago Eŕaimuntxo : ezer auŕezten ez duan gizona, ergela da, izan liteken ergelena gero. Ea, ik, Martintxo, ea zer ikasi deken ik ipuiñaz.

—¿Nik? Iñaki bezelakoak izan beaŕ gerala, ez Mikel'en antzekoak; ez degula, alegia, utzi beaŕ gutxi dana, gutxi dalako, gutxikin asko egin leike-ta.

—¡Edeŕki, edeŕki! Ara oŕ auŕezteko bide egoki bat. Gutxi dana bildu, gorde ta zaitu beaŕ

da, xoxak eta xentimoak añoko guzia, Iñakik gari ale bat aŕtu, gorde ta zaitu zuan eran. Apuŕak ere, auŕeztuaz-auŕeztuaz geitu oi-dira; auŕezten diran xentimoak, ereiten dan gari alearen antzekoak dira: geitu ta geitu oi-dira, ta poliki poliki kutxatxoak eta kutxa aundiak eta etxeak eta eŕiak diruz bete oi-dituzte...

—Orain nik, amatxo, orain nik, ikasi det-eta nik ere ipuiña.

—Ea, bada, edeŕ ori, ¿zer ikasi den ik?

—Gauza batetik asko, asko norbaitek duanean, ezer ez duten bere laguntxoei eman beaŕ diela, Iñaki'k egin zuan bezelaxe; Iñaki'k gari asko, asko zuanean, guziei eman zien erein zezaten, eta gañera, txoriei ere jaten utzitzen zien...

—¡Atoŕ nigananontz, ene kutun ori, musuka jango aut-eta! ¡Egi-egia esan den! Auŕezteak ez din berekoya izan beaŕ. Dirua gorde beaŕ da, baña ez dirua izateko nai biziaz bakaŕik, on egiteko baizik. Lenen-lenengo norberaren gaitzen zuzen-biderako, baña baita gai diran gañerakoei ogia ta poza emateko ere. ¡Txoriañoko guziei...

—Ta ¿zuk ipuiñaz zer ikasi dezu, ama?

—¡Esan dezala, esan dezala!...

—Esan, amatxo, esan txit edeŕki esaten dezu-ta.

—Ara, ba. Areistian esan dizutet zer ¤dako pozez egon zan Iñaki berak ereindako gari-bu-

ruari begira ta begira, ainbeste gari bere eŕian amaika bideŕ ajolarik gabe ikusi izan zuan-aŕen. Ta ¿zergatik ori? Gure lan eta gure maitasun-apuŕen bat jaŕi oi degun gauz ura baño atsegiñagorik ezertxo ere ez zaigulako. Eŕaimuntxo, ik aŕiz jo gabeko txakuŕik gutxi igoroko dituk kaletik-baŕena; eta mutil-koxkoŕen batek ire zakuŕari aŕika egiten ba-ziok, belaxe buŕukan aiz berekin.

—Bai, zakuŕa...

—Martintxo, ik ezin diok baratzan txori bateri pakean, ta katuak ire txoriari zerbait egitea aski dek i negaŕez asteko.

—Ik, ene kutun oŕek, zelayan ikusten ditun lore guziak ebaki aŕteko onik ez den, baña ire amarekin ere asaŕetzen aiz, ire lore-ontziko loreen bat aŕtzen ba-din.

—Nik zaitzen ditudalako.

—¡Jakiña! Eŕaimontxo'ren zakuŕa, Martintxo ren txoria ta Mirentxu'ren lorea, gañerako zakuŕ, txori ta loreak bezelakoak dira, baña...

—Txakuŕa ez, ama.

—Txoria ere ez.

—Ez da lorea ere, amatxo. Nere lorea...

—Bai, enetxuok. Gañerakoentzat bai; zuentzat ez. Zuen oyek, Mirentxu'k zionez, zubek zaitzen dituzutelako; oyetan zuen alegin, maitasun eta ametsak, zuen bizitza—puskatxo bat jaŕi dezutelako. Oŕegatik, gañerako zakuŕ, txori

ta lore ez bezelakoak deritzazkizute. Jaŕi, bada, zuen gauz guzietan oŕelako alegin piska bat, eta bizitzako neke guziak eztiſuko dituzute. Landu maitasunez zuen bizitzako soroa, Iñaki'k bere gari burua landu zuan antzera. Zuen betiko eginkizuna, auŕeztea bedi, ez noizean-beinko zuen eginkizuna bakaŕik. Baña ez dediĺa, aŕen, zuen auŕezte ori, auŕezte uts eta berekoya izan. Jaŕi oŕetan, Iñaki'k bere gari-buruan jaŕi zuan erako maitasuna; zeok zuen zakuŕ, txori eta lorean jaŕi oi-dezutenaren antzekoa. Eta, orain maitasunez, ametsez gorde beaŕ dezuten diru ortaz bein-edo-bein beaŕtuko ba'ziñateke, beaŕ dezuten garai artan bera zeron eskuetara etoŕiko zaitzute, ire zakuŕa bezain zintso, Eŕaimun; ire txoria bezain alai, Martintxo; ta usai gozoz beterik, ire lorea bezela, ene kutun ori... ¡Erein maitasunez, enetxuok, erein maitasunez!...

—Amatxo, ¡zein ederki esan oi-dezun guzia! ¿Nork erakutsi ote-dizu oŕela gauzak esaten?

—Zuek, enetxuok, zuek, neretzat guzia zeraten oyek, zuetan nere alegin guziak, nere amets oro, nere bizitza osoa jaŕiko dedan oyek!

URKA-MENDI

URKA-MENDI

I

Negua zan eta izan ziteken negurik goŕiena, alare. Apaldu-ondoren sutondoratu giñan guziok otzaren igesi noski, geyenak iñoiz iñoren belaur ez diran baseŕitaŕ bulartsuak izan-aŕen. Ni, kaletaŕ kaskaŕ au beintzat, bero eztiaren atsegiñak eraman niñuan ara. Gañerakoak, beŕiz, neri lagun egite-aŕen, aratu ziralakoan nago. Dana dala, sutondoan eta oe bezoan egoteko obea zan gau ura, nire ustez, leyo-alboan beŕiketan jarduteko baño.

—¡Ura gaba, izan ere! Ekaitza txistuka... zugaitzik leŕdenenak jo ta ipurditik atera beaŕean... Ortots beldurgaŕiak, eta sukalde baŕuraño saŕtzen zirala ziruditen tximista ikaragaŕiak, aldizka... Ta onezaz gauera, euri jasa ta kaskabaŕa leyo ta etxeko zoko guziak aztintzen...

Aitona lenengoz abiatu zan tapa-tapa sutondoan beretzat beti egon oi zan aulkitxora, antxe pipakada bat ketu ta umeei ipuintxo bat-edo-beste esateko asmoz. Umeak beŕiz, aitona an ikusi zuten bezain laisteŕ, ipuŕtarindu ziran eta jaten ari ziran taloa ta esnea, bete-bete egin zirala-ta, mai gañean utzirik, aulkitxo bana aŕtu ta aitonaren ondoan exeri ziran.

—Aitona, ¿gauŕ ipuiñik bai?

—Ez, ume, gauŕ oera goiz-goiz, otz-dago-ta.

—Ez, aitona, ez... Ipuintxo bat... Bat besterik ez.—Zioten umeak erdi-negaŕez. Ta jakiña; umeak, oŕela jaŕtzen ziran bakotxean, garaile izan oi ziran. ¡Geyegi maite zituan, izan ere, bere kutun ayek beren kutixi zuzen oro, al-zituan eran, ez betetzeko! Gañera, ¡ze aŕano! berak ziona, beti gauz onen bat-edo-beste geldítzen zaye umeei ta... jo ta aurera. Olaxe azi ta ezi giñuzten gure auŕekoak ere...

¡Ikustekoa zan ume ayen begiraztea gure aitona izketan asi zanean! Adi ta zuŕ, begiyak pozaren pozaz ñir-ñir zituztela, aitonari begira.

Gu, bitaŕtean, euskerazko toki izenik batzuek ongi ala okeŕ jaŕiak ote-zeuden, mayean ez ta bayezka ari giñala gogoan daukat oraindik : ta azkenez, aitonak bere ipuiña amaitu zuanean, beregana jo genuan, guretzat ain itzalgaŕia zan bere iritzia, berak agertu zezaigun. Esan beaŕik

ez det, gure Asabak ain zuzenki ezaŕitako izen oyen alde, mintzatu zala ao bete-betean. ¡Amaika zergati ta zio atzaldu zizkigun, oi zuan argiz eta indaŕez, guziok bat etoŕi giñezen, ta baita oŕetarako adi-bide ugari erakutsi ere!

Ezin aztu izan zait, aŕezkero urteak urteen gain erori zaizkit baña, Deba'ko « Urka-mendi » deritzan menditxoaz orduan edestu zigun ipuiñaz. Ark, mendi-izen oŕen jatoŕia guri adi-erazteko bakaŕ-bakaŕik edestu zigun, ta guzioi atsegin izan zitzaigun, alaz guztiz ere. Geroztik, nere baŕuan euki det gorde-gordeta, bidaztiak bere bidean bildu oi-dituan lore oroigaŕi zimelak eukitzen dituan bezelaxe. Ta orain nere baratzako beste oŕi ta loretxuekin batean alkaŕtu ta txoŕta bat egiñaz, irakuŕle damatzut, oraindik ere lore zimelaren usai gozoa atsegiñez somatuko dezulakoan.

II

Deba inguruko basetxe batean gertatu zan. Basetxe ospetsu onen izenaz ez datoz bat, zoritxaŕez, gertaera aŕigaŕi onetzaz idatzi duten jakintsuak: batzuek «Artadi» deritzate, bestetzuek, beŕiz, « Jauregi-beŕi » izenaz bakaŕik izendatu oi dute beti. Dana dala, izen biok ondo baño obeto zegozkion, aitonak zionez. Batetik, aritz eta arte sendo ugaridun toki alaitsuan zegolako, eta bestetik nolanaiko basetxea baño jauregi edeŕ aun-

di bat zirudilako. Guk, nolabait deitu beaŕ-eta, « Jauregi-beŕi » izenaz ezagutuko degu.

¡Ango aberastasunak, noski! Iru zelai edeŕ-aundi etxe inguruan, baso zugaitz josia mendian, baso-bidean, beŕiz, sagaŕdi zabal bi ta ukuĪuan amaŕ bei esnetsu bai, beren txal ta txekoŕ lodiekin, eta ez dakit nik zenbat oĪazko ta oĪanda.

Ipuiña asten degun garayan senaŕ-emazte ezkon-beŕiak moŕoi bi ta neskame batekin bizi dira bertan. Gutxitxo, alare, ez ote ziran nago an soŕtzen zan lanari eutsitzeko.

Baña, ez dira senaŕ-emazteok zoriontsu; badute beste zerbaiten beaŕa zorion izateko, ta ori gabe etxe, aundi ta edeŕ au otzik eta utzik dagola deritzaye. Bi urte ba-dira ezkondu zirala ta ez die Jaungoikoak semerik eman oraindik. Azkenez, ordea, Goikoak entzun zituan beren aŕen eta otoitzak eta beren alde alabatxo mardul bat ematen ziela. ¡Ayen poza! Zortzi egun oso iraun omen zuten, jayotza pozkaŕi auxe ospatzeko basetxe-auŕean egin ziran jai eta jolasak. Ene, antxe egun oyetan bildu zan oztea, noski. Upel bat sagaŕdo eta iru zagi ardo uztu omen ziran egun zoruntsu ayetan basetxean. Baña ludi aldakoŕ onetan guzia ba-dabil ta egunok ere igaro ziran, ta ez geyago etoŕtzeko agian.

Ez zan, alabaña, Jauregi-beŕi'tik zoriondasuna egaztu. Antxe kabia jaŕi zuela zirudian.

Beren alabatxo arekin zoraturik zeuden senaŕ-emazteok, musuka jan beaŕ zuten bere ura. ¡Makiña bat bideŕ, ikusi zuten bidetik zijoazten baseŕitaŕak, ama auŕa besotan zuela, basetxeauŕeko arte itzaltsu baten kerizpean! ¡Baita amaika aldiz bidetik, emakumeak auŕtxoari pa-ematera etoŕi ere! ¡Oŕenbeste maite zuten guziok ume ura!

Bein-batean, Oŕilako aŕatsalde edeŕ bat zan, ama-alabak areistian aitatutako kerizpe oŕetan zeudela, Muskin zeritzan zorgin ospetsua bidetik igaro zan. Baño, zorgiñak ere baŕuan biotza euki nunbait, eta amaren magalean, paŕiŕi gozoa ezpañetan zuela lo-zegian aingerutxo aŕek, biotzean alako kilikatxo bat egin zion noski, eta aren bekoki legunean musu bero bat emateko asmoz berenganatu zan. Ta ¡aŕigaŕia! umetxoa bat-batean, ametsetan bezela esnatu zan eta bere eskutxoaz eta negaŕ-malko samiñez zorginmusurik nai ez zuela adi-erazten zuan. Muskin begietatik su ta gaŕ zeriola jaŕi zan, eta auŕtxoari begira-begira esan zion: ¡Madarikatua bedi ire biotzak lenengoz maitatzen duan mutil-gaztea!

Zorgiñak itzok esan bezain laisteŕ, ega beltz aundidun saguzaŕ bat egaka igaro zan umearen auŕpegi-auŕetik. Amak deadaŕ egin zuan ikaraz, eta bere alabatxoa estu-estu laztantzen zuela, etxean saŕtu zan gaxoa.

Zorgin gaiztoak, ostera, paŕez eta algaraz bere bideari eman zion.

Orduantxe eguzkiak mendi-taŕtetik azken-izpia zigoŕen; txoriak beren kabieta zetozen txio ka..... Ortze urdiñean poliki-poliki izaŕak ageŕtzen asi ziran, eta azkenez udabeŕiko gau edeŕak, ilun eta ixildasunez estali zuan lozoŕoan zetzan ludia.....

Baña gau artan Jauregibeŕi-auŕetik, ene irakuŕle maite ori, igaro izan ba'ziñan, entzungo zenituan ume-negaŕik ugari, bertan ume bat besterik izan ez aŕen. ¡Ura gaba, gau ura! Ez zayo belakoan aztuko amari. ¡Antxe gau osoan, auŕtxoaren seaska-alboan, seaskari eragiten eta loabestiak abesten!.....

Auŕtxuoi, egik lotxo bat,
emango diat goxoa;
aitak bat eta amak bi
ta Goiko Jauna'k amabi
¡Lo!...
....

Itxasoa laño dago
Bayona'ko alderaño,
nik zu zaitut maiteago
txoriak beren umeak baño.
Gure oroiz aita dago
laño pean gaberaño.
Nik zu zaitut maiteago
aŕaitxoak ura baño.

Baña guzia alpeŕik : loak iges-zegian auŕ-txoaren begietatik. Goiz-aldera, eguzkia mendi-tontoŕik tontoŕenak argitzen asi zanean aŕtu zuan loak auŕ gaxoa.

II

Geroztik emezortzi urte aundi igaro dira. Jauregibeŕi'ko alabatxo ura, orain begi urdin-dun neskatilik lirain eta edeŕena da. Ta geyago dana, soñez edeŕa bezela gogoz ere maitagaŕia; benetako edeŕtasunaren gogo ta zaña dan argi garbiak, bere udako gaben antzeko begi urdiñe-tan dirdits dagi-ta ....

Ez zan basetxetik belakoan, zenbat neska baseŕitaŕ bezela, edozez aitzakiz kalera joango. Bere amarekin igande ta jai goizetan mezetara zijoanean baizik, nekez ikusiko zuten bera eŕiko kaleetan. Ezin esan zitekean beratzaz, arako « dantzan obeto daki, artajoŕan baño », edozein gizoneri lanean eramango zion-eta, dantzan ere ez zan makal-makala baño.

Era oŕetako neskatilak, jakiña, mutil-gazteen begiak lendabizi, eta begien-atzetik biotzak lais-teŕ, bereganatu beaŕ. Lenengo-lenengoz Martin zeritzan « Eŕota-zubi » basetxeko mutiĪak bere maitasuna agertu zion. Mutil on eta langilea zan benetan, basetxe artako bigaŕen semea ordea, ta ezin ezkontzara bere beso sendoetako ta bere biotzeko maitasun sutsua besterik ekaŕi zezakion

neskari. Aldi ayetako legeak basetxea bere abere, luŕ ta guzti seme zaŕenari uzteko agintzen bai-zien gurasoei. Oraindik ere, okeŕ ezpa-nago, oŕelako zerbait egin oi da Napaŕuan. Orduan beintzat, Eusko-eŕi osoan oitura ori zan. Txaŕa ala ona ote-zan aztertzea ez da orain ori nere egitekoa: on apuŕen bat-edo-beste ekaŕi baldin ba-zigun, ezin esan ala kalte eta zoritxaŕen ituŕburua ere izan zitzaigun beintzat.

Bañan utzi dezagun arlo au jakintsuentzako ta guazen gu gure arira.

Alaz ere, maite zuan Jauregi-beŕi'ko alabak mutil ura, ta benetan gero, ogei urtetan neskatīla garbi batek bere egiazko senaŕgaya maite lezaken eran. Alabaña, egunetik-egunero īlunago zegon bere biotz maitalea. Aspaldian, begien auŕean odei beltz bat dakus gaxoak, ekaitzauŕetik goibel dagola ageŕtu oi-dan odei kalteko ŕaren antzekoa deritzayo. Alpeŕ-alpeŕik ez ote zebilen, iñoiz mutil ura beretzat izango ote-zan, azkenez bere biotzetik jauŕti beaŕko ez ote zuan nai ta nayez maitasun oñazekoŕ ori, ta nik ez dakit beste zenbat kezka ta naigabe zerabilzkian neska gaxoak bere baitan, egunaren buruan.

Izan ere neskatxa on bat artegatzeko aña bazan noski. Berak, alaba ona zan aldetik, bere gurasoen esana egin nai zuan eta gogoŕ zeudela ayek ezkontza ori alegin guziz galazteko begien auŕe-auŕean zeukan. ¿Nork bere artatik, aita ba-

tezere, atera? Ez dira bi ilabete oraindik bere aitak esan ziola :

—Neska, ez den mutil ori, ire kideko mutila : gazte zintso ta langilea den, bai zinez. Baña, neska, ez den ori aski, oŕez gañera, amaiseko goŕi asko beaŕko dizkin, ire eskua nai dionak.

—¡Amaika negaŕ samin egin du gaxoak, geroztikan! ¡Au lana! Aitaren esana egin nai, bere biotzetik maitasun ura uxtatu nai ta ezin; mutil ura aztu nai, ta ezin iñondik ere aztu. Buŕuka gogoŕ onen gaŕaztasuna bere baŕuan noiz-edonoiz somatu duenak bakaŕik, ezautu lezake argiro.

Egunak ordea, aurera zijoazen, eta neskamutilak ere beren leloari eutsita, bi maitale liluratuen eran. Azkenez, Jauregi-beŕi'ko jaunak neskari adi-erazi ziona, mutilari ere berak adieraztea erabaki zuan. Oŕetarako era egokia andik egun gutxi baŕu izan zuan gure gizonak.

Igande aŕatsaldea zan, egualdia ona baño onagoa. ¿Noletan Martin bere maitea ikusteke, alai lagun-aŕtean gelditu? Jauregi-beŕi'rontz jo zuan, ba, arin-arin; eta azkazalak ere izerdi patzetan zituela eldu zan. Orduantxe basetxeauŕeko baratzan loreei ura ematen asi zan bertako alaba.

—Garai onean atoŕ, Martin—esan zion neskak erdi-paŕez mutila ikusi orduko.

—¿Zer, ba?—darantzuyo era berean mutilak.

—To,—ta lorontzian zintzilik zegoan lorerik ederena artu ta maiteki musu-emanez, mutilari eman zion.

Baña ernea izan gure mutila, nunbait, eta ain-



besteko maitasun-agergai-artean, egun artan bestetan ez bezelako alako zerbait, nabaitu zuan noski neskaren begietan-edo. Begiak gogoren

leyoak bai-dira; argatik biotz-barengo gorabe-rik asko begietatik ezagutu oi-dira sari asko-tan.

Au dala-ta, artega zegoan gure Martin, ezer beŕirik ote-zan jakin-miñez. Bere asmoa neskari agertzeko era egokia izan zuan, azkenez. Ara, noletan :

Beŕiketan biek, zugaitz-kerizpean exerita, ari zirala, neskak mutilaren biotzeko buŕuka gogo-ŕaren ots eta zarata somatu zuan, eta baita so-matu zuan bezain laisteŕ mutiĪari bere iritzi onen beŕi eman ere. Ez zuan Martin'ek besterik nai, baŕenen eŕetzen zeukan usmo gaizto ura enbait-len bota baño.

—Bai, gauŕ itun natxion, ziñez — maitekiro erantzun zion mutilak— : naigabearen ezten zo-ŕotza biotz erdiraño saŕtuta zeukanat tinko-tinko, ta euk, ez beste iñork, euk, ire eskuz, saŕtu den ustekabean..... Jun den aste onetan alako zer-bait gertatu zan iri, neska. ¿Zergatik ez dian alik-eta-laisteŕen aitortu guzia? ¿Zer dala-ta, itzez estali nai den gaxo oŕek, ire begiok ain argiro desatena? Aitoŕtu zaidan, bada, maite, lenbait-len guzi guzia..... ¿Ez naun len bezela maite, ala? ¿Beste norbait saŕtu ote den, ba, len neretzako bakaŕik unan biotz oŕetan?—Asi ziran biok ezetz eta bayezka, ta neskak, baña, azke-nean agertu beaŕ izan zion mutiĪari ordураŕte inoiz argiro beintzat, esaten ausartu ez zana.

—¿Ori esan al-din? Ez aiz i, ene kutun ori, neretzako, beraz.

—Ez dakik e::k ordutik ona zenbat negaŕ samin egin diadan, biotz-baŕu-baŕuan aukak-eta... Ezin uxtatu aut-eta bertatik.—Eta negaŕ-ta-negaŕ zegian neska gaxoak.

—Argatik izango aiz i nerea eta ni irea izango naun beti, uxtatu eziña den-eta gure maitasuna, iĪezkoŕa den-eta. ¿Nork, ba, bere sua itzali? Txukatu itzan, ba, malko oyek..... Ez adi oŕela artegatu. Gauŕ ire aitarekin biok egongo gaitun, ta gure maitasun bizia, iĪezkoŕa, adieraziko zionagu, ta entzungo zigun, eta azkenez, gure nai ori orduan, laisteŕ beteko diñagu.

—Ta ¿bere usteetatik ezin atera ba'genikek?

—¡A! Orduan..... Orduan ere bai..... Naita nayez i nerea izango aiz.....

—¿Bai ote? PoĪiki-poĪiki, gizontxoa, ni bizi nauken aŕte beintzat.

Urdamutuŕa baño goŕiago jaŕi ziran neskamutiĪok, itzok entzun zituztenean. Ba-zan bat lotsatzeko aña izan ere, Jauregi-beŕi'ko jauna ber-bera begiz-begi antxe ikusita.

—Entzun dizkiat ire azken-itzok—jaŕaitu zuan iŕi-baŕez Martin'eri begira— : edeŕki, moteĪ. Oŕelako mutiĪak atsegin zaizkiak neri, bulaŕtsuak, eragozpenen auŕean «jo ta kea» esanaz beti auŕerontz egiteko bulaŕa dutenok, ez utsagatik uzkurtuta gelditu oi dituken beste mutil-gazte oĪo

oyek. Edeŕki, Martin; egingo nikek azkenean iretzat izan bayetz nere alabaren esku zuria. Entzun zaidak eta jakingo dek nire asmoa :

Ba-dakik, eta ezpa-dakik jakin zak orain, nire alabaren senaŕ egiten ba-aiz, ontzakuŕe pila baten jabe ere egingo aizela : gañera, jakiñan gañean egongo aiz onezkero, nire auŕekoak, eta neonek ere, izerdiaren izerdiz egindako ontzakuŕe goŕiok, utsean iñoŕtxori emateko usterik ez zeukatekela. Ez iñolaz ere : ez gaituk, Jaunai eskeŕak, oraindik ainbesteraño txoratu. Maitasuna ere bai, beaŕ-beaŕezkoa dek ezkontzarako, baña ontzakuŕeen dizdira ere, Martin, aintzakotzat aŕtzeko gauza deritzayak. Augatik gure asabak esan oi-ziten noski, arako : « Ire berdiñarekin ezkon adi, eta ondo izango aiz beti ». Ara, ba, ona ala txaŕa, nire asmo ta erabakia : Beste amabost eguneko epea ematen diat : egun oyen buruan, nire alabaren eskua aŕtzeko lain aberaztasunen jabe egiten baldin baaiz, iretzat izango dek bera. Baña, ogasunok ireganatzen ez ba-dituk, beste baten emaztea izango dek laister. Oŕa, jakiñaren gañean auŕez-auŕetik jaŕi.—

Alpeŕik izan ziran mutiĺaren zergatiak, aŕenak, eta neskaren antzi eta maŕuak ere, alpeŕik. Ura zan bere erabaki sendoa ta beteko zuan, bai ziñez.

Mutiĺa Jauregi-beŕi'tik aldendu zan bezain lais-

teŕ, bele egal luze bat basetxe-gañean egaka agertu zan. Bi emakumeak deadaŕari eman zioten eta etxeko zokorik zokoenean izkutatu ziran. Alako belduŕa saŕtu zitzayen biotzean egazti beltzaren bat-batezko ageŕpenaz. Ama batezere, txeŕen ber-bera begien-auŕean ba'lu bezelaxe, aitarenka ta otoizka asi zan : eta ez zion emakume gaxoak gau osoan senaŕari pakean utzi.

—Ez egitekoren bat, egingo dik mutil oŕek, ez diagu ataŕamentu onik aterako.....

—Baña, emakumea—erantzun oi zion bere senaŕak—, ¿bele oŕek oŕela estutu au ala? Egon adi lasa, zorginkeriak ditun-eta oyek : ez den mutil ura ez egiteko aundirik egiteko gauza..... Gañera okeŕenera jota ere, ¿zer egin bezake gure kaltez? Ni ta nere bi moŕoyak oñen gañean gauden bitaŕtean beintzat, ez zionat belduŕik.....

Eta auxe izan oi zan beti emaztearen eranzupena :

—Ez digu ataŕamentu onik ekaŕiko mutil oŕek..... ¡Ene bada! Jaungoikoak digula beintzat bere laguntza.

Emaztearen belduŕ-ikarok azkenean senaŕaren biotzean ere alako belduŕ-izpitxo bat piztu ote-zuten nago. Ametsetan, Alostoŕe'ko gertaeratzaz eŕiak atera zuan abesti ilun auxe abesten, somatu omen zuan beintzat gau artan bere emazteak :

Alostoŕea, bai, Alostoŕea
Alostoŕe'ko zurubi luzea.
Alostoŕea'n nengoanean
goruetan, bela beltza
kua, kua, kua, kua, leyoetan.
.....
.....

IV

Aŕatsaldea zan oraindik, Martin'ek, Jauregi-beŕi'tik aldenduta, bideari eman zionean. Nora jo ez zekien, zer esaten zuan ere ez : otoitza bezela biraoa ere zerion bere aotik. Naigabeak eta asaŕeak begiak estali ziozkatela, zirudian. ¡Ura buŕuka gaitza zeraman bere biotz-nastuan!

Ibiĺi ta ibili, azkenez izerdiak eta nekeak ernetu zuten eta bere leloari utzirik, bide-eŕtzeko aŕi baten gañean exeri zan.

—Baña ¿noruntz noa ni?—zion bere baitan—. Ez da au nire etxeko bidea. Ia..... Ez naiz, ¡aŕanopola! gutxi ibiĺi. Baño ¿muño oŕen atzeko aldean ez dago, ba, Muskin zorgiñaren txabola? Bai, noski. Zorgin oŕek zuzenduko nau arazo naspil onetan.—

Eta aruntz abiatu zan ausaŕki. Ia, ia txabolara eldu zanean, ordea, oroipen batek uŕatu zituan bat batean bere buruko iĺunpe gogoŕak, tximistak gau iĺunean egin oi duan eran, eta txi-

mistaren atzetik belaxe ortotsa bezela; Jainkoaren otsa entzun zuan argiro bere biotzean: «Ez zak ori egin».



Alabaña bere zabaŕkeriz lenago etsayari bere biotzean leku aŕtzen utzi ziolako, orain loturik

lez arkitu, ta are geyago, loki gaitzok ausitzeko indarik gabe. Barengo ots areri, ba, ez entzuna egiñaz, zorgin-txabolaren atea jo zuan.

Belaxe iriki zan atea eta esan ere ez liteken atsorik itxusiena jari zitzayon gazteari begien aurean. ¡Mutilaren biotzean orduan sartu zan beldura! ¡Ez ote zan gero inpernuko deabrua ber-bera atso suduŕ-luze itxusi ura! Atzera-egin nai izan zuan, baña berandu zan, atea itxita zegoan. Igari zion zorgiñak, beldur zala mutila, eta amona xamur baten antzera itz-egin zion biotzik ere ez zuan gaiztotzar arek.

—¿Zeren beldur aiz, gazte? Ez ziok Muskin zorgiñak iñoiz kalterik egin, bere laguntza-eske datorenari.—Eta mutila maitekiro eskutik artuta sutondoko aulkitxo batean exeri asi zuan.

—Gazte, zerk ekari ote-au nere txabolaraño. Ala bearak edo maitasun-min zorotzen batek noski: alaxe etori oi dituk i bezelako gazteak geyenetan. Dana dala, aitortu zaidak argiro beldurtzeke, esku-artean darabilkiken arlo ori, ta bion artean zuzenduko diagu, zuzen-biderik baldin ba-zaukak beintzat. ¡Amaika, mataza nastua baño nastuagoko arazo zuzendutako andre Muskin zorgiña ni! ¡Ta orexegatik bein baño geyagotan goriak ikusitakoa! Izan ere on-egiteagatik latzak eta beltzak ikusten bizi bear du batek lur gaizto onetan. Baña besteren esamesak-gorabera, bost ajola neri! Orexeri eskerak: bestela...

Eta itza ta pitza zerion ezpañetatik atso gaiztoari. ¡Baita azkenean nai zuana iritxi ere beŕitsu zantaŕ aŕek! ¡Oŕa, len belḍuŕez uzkuŕturik zegoan mutiĪa, orain atsegiñez leŕdena dariola, bere etsairik gogoŕena dan zorgin aregan uste osoa jaŕita! ¡Ura atsoaren poza gazte au Jauregibeŕi'ko alabaren lenengo senaŕgaya zala jakin zuanean!

—Oraintxe ordainduko dizkiñat, ardi bat ere utzi gabe, aspaldiko nere zoŕ guztiak—zion bere aŕtean zorgiñak—. ¡Gaiztoa, alen gaiztoa! laisteŕ aŕtuko den ire zigoŕa, bai ziñez. Oraintxe ezagutuko den, berandu bederik, gaxo oŕek, ik ezezten den Muskin zorgin au, nor dan. Jayotzetikan goŕotatzen naun ik: neonek ere, arako egun orogaŕi aŕtatikantxe, biotzik gogoŕena dun zorgin batek bat goŕotatu lezaken lain, goŕotatze aut..... Ez aukat eoŕi nire eskuetan: ik geyen-geyen maite den mutiĪa, ordea, nere mendean zeukanat. Orain-aŕte ire maitasuna unan auxe, ire lotsakizuna izango den gauŕtik.—

Txeŕen'en burutasuna izan zan noski.....

Dirua beaŕ zuala mutiĪak Jauregi-beŕi'ko alabarekin ezkontzeko: gauŕ bertan diru ori bere eskuetan euki zezaken nai izan-ezkero, eta eŕaz alare.

—¿Bai ote? Erakutsi zaidan ori irixteko bidea eta jungo naun oŕetarako iltzeko zorian jaŕi beaŕ ba-nintzake ere.

—Iltzeko zorian ire burua ikusi gabe ere iritxi ezakek diru ori.

—¿Noletan, baña? Adi-erazi zaidan, belaxe bere biĪa-jun nendintzat.

Baita zorgiñak, asko estutu gabe, adi-erazi ere. ¿Ta nola gero? ¿Zer nolako eztiz igurtzi ote-zituan atso azkaŕ aŕek orduan bere itz guziak, mutil argi ura ala atzipetzeko, eta alako gaiztakeriraño bultza ta eraman-azteko? Ez da jakitea, gauz eŕaza. Dana dala, zorgiñaren txabolatik irten ta Itziaŕ'erontz jo zuan Martin'ek zuzen-zuzen. Ta bitaŕtean, antxe pozez algaraz bere txabola-atadian atso zorgiña.....

Martin abiatu zanerako iluntzen asia zan.

V

Itziaŕ'ko Ama Garbia'ren eleiz-atadira gure mutil gizagaxoa eldu zanean aŕas ilundu zuan. Ez zan udabeŕiko aize legunak egin oi-duan abaŕ otsa beste otsik alderdi ayetan entzuten: Eleiz-ateak irikita zeuden, eta ez zan eleiz-inguruan inortxo ageri. Eleiz aŕek ez bai-zuan euskaldunentzat giltzik, gabaz bakaŕik itxi oi-zuteneta.

Eleiz-baŕura saŕtu ta Ama Neskutsa'ren auŕean aŕkitu zanean, ez zuan zekaŕen asmo gaiztoa betetzeko bulaŕik izan, eta atzera egin zuan. Ango iĪunpe ta ixildasun deunak beldurtu zuten

nunbait mutila. Baña zorgiñaren itzak igaro ziran bat-batean orduantxe bere buruan, udaragabetan ortze urdiñean batetik-bestera igaro oidiran izaŕ igeskoŕ oyen antzera, eta kemen eta ndaŕez beterik aŕkitu zuan geroztik bere lengo biotz belduŕti ura.

—Bai, berealaxen egin nezaken lana det guzia—zorgiñaren itzak gogoraturik, zion bere artean Martin'ek—: igo meza-mai oŕen gañera, dirdits-dagian burestun ori aŕtu, Muskin'eri alík laxteŕen eraman eta ezkontzeko aña dirukin naiz biyaŕ bertan... ¿Nork jakin lapuŕa zein izan dan? Ez du iñork zorgiñarengandik jakingo belakoan.

Eta txeŕen'ek bultzatuta noski, bat batez meza-maira igo zan, Ama Garbia'ri bere uŕezko burestun edeŕa kendu zion burutik, eta kolkoan al izan zuan bezela izkutaturik igesari eman zion eta mendirontz jo zuan. ¡Aren ibiĭlera! Ez du basuŕdeak, bere agian saŕtuta zintzilik daraman buŕni zoŕotzaren oñazea nabaitzen duanean, laisteŕago ta aldaŕ geyagoz mendiz-mendi auŕera ekiten, gure mutiĭlak gau artan egin zuan baño. Gau osoan ala ibiĭli zan, gelditzeke.

—¿Noraño etoŕi naiz onezkero?—zion pozaren pozaz bere baitan.—Itziaŕ'tik uŕuti, bai beintzat. Ori dagokit orain: gero, biyaŕ naiz etzi, Muskin'engana joko det eta..... aberats naiz. Jauregi-beŕi'koak, ordea, jakin naiko dute noletan egin ote naizen ain agudo dirutza oŕen jabe,

eta gezuŕ apañen bat ere asmatu beaŕko, noski· Baña Muskin zorgiña nere alde daukadan·ezkero, gezuŕ-olak soŕtzeko beintzat ez det beste iñoren bearik. ¡Zutik joango liraken gezuŕak itzetik-oŕtzera esango lituke-ta asko estutu gabe zorgintzaŕ-aŕek!—

Eta atseden alditxo bat aŕtzeko ustean, luŕean zetzan enboŕ lodi baten gañean exeri zan. Orduantxe ari zan eguna argitzen. Mendi-buruen gain-gaiñean arako argi-leŕotxo bat ageri zan lendabizi; poliki-poliki gero zabaltzen asi zan, eta azkenez, eguzkiak, txinparta ta gaŕa zeriola, bere arpegi gaŕtsua mendi-goyan ageŕtu zan, eta bat-batez lozoŕoan zirudian luŕa esnatu zan. Orduan Martin'ek ere nun zegoan argiro ezagutu zuan.

—Baña ¿nola liteke ori?—zion aŕiturik—. Gau osoan izeŕdi patsetan goyak eta beak jotzen ibiĪi-ondoren, oraindik ere emen aŕkitzen al-naiz? ¿Ametsetan ez ote nago, gero?—

Eta begiak iguŕtzi ta iguŕtzi ari zan gizagaxoa begien auŕe-auŕean zekusana ziniztu-eziñik. Ezin, ordea, ukatu : mendi-gañean su ta gaŕ zerion eguzkia bezain argi, zekusan-eta. Bere aŕats artako ibiĪera neketsu ura, alpeŕik, beraz. Itziaŕ-alboko muño batean aŕkitzen zan·eta oraindik : antxe auŕean begiz-begi zeukan Ama Garbia' ren eleiza, bertan bart egin zan lapuŕeta lotsagaŕia, deadaŕka baseŕitaŕei adi-erazten ba'lego lez.

Lapuŕaren bila betik-gora zetoŕen baseŕitaŕ mordo edeŕaren iskanbīla ta zaratak somatu zituan gure mutilak, eta bere burua galdutzat etsi zuan. Au zala ta ura zala, baseŕitaŕak bidean zebilkiten zaŕapaŕa, izan ere! Itziaŕ'ko baseŕitaŕ oro sakabanatu omen ziran batera ta bestera, lapuŕaren bila. ¡Ayen aseŕea! Txikituko zuten lapuŕ gaiztoa, zegoan tokian beren atzapaŕ sendoaz.

Laŕitu zan benetan mutīla eta eŕukizko Ama zaigun Miren'engana bere zoritxaŕ artan laguntza eske jo beaŕean, txeŕen'engana, bere etsairik goŕotogaŕiarengana jo zuan gizagaxoak. Kolkoan zekaŕen burestun zorigaiztozko aŕek, zutan goŕi-goŕi dagon buŕniak bezela, bulaŕa eŕe ta kiskaltzen ziona irudi zitzayon orduan, eta luŕera jauŕti nai izan zuan. Bañan alpeŕik izan ziran bere alegin guziak; bere aragiarekin bat-eginda bezelaxe zeukan-eta; bere bīla zetozenen otsak eta kaŕaziak uŕbil entzuten zituan, eta iges egin nai izan zuan; ezin ordea, bere oñak motel-motel bai-zeuzkan auŕera ezin egin zutela... Nora jo, bada? ¿Zer egin estutasun beltz artan? ¿Lapuŕaren bīla iŕintzi ta zantzoka zetozen pizti zauritu ayen eskuetan bere burua jaŕi, ala?

Bere buruan orduantxe, oldozkun īlun, izugaŕi bat soŕtu zan bat-batez, il-obi-gañean neguan jayotzen dun loretxoa baño agitz itunagoa, gaiztoaren eriotza bezain izugaŕia. Igo zan, ba,

laisteŕka zugaitz batera eta geŕian zekaŕen geŕiko luzea azkatu, ta beragaz zugaitz-adaŕ sendo bat eta bere lepoa loturik, goitik-bera bota zuan bere burua. Lapuŕaren biĺa zebiltzan basetxetaŕak eldu ziranerako, iĺotzik zegoan gazte eŕukigaŕia. Ori izan zan, beraz, Martin gaxoaren zorigaiztozko bukaera. Geroztik, alderdi ayetako baseŕitaŕ guziak, lapuŕaren biĺa zetozenetatik asita noski, muño edo menditxo au «Urkamendi» izenaz izendatu oi-dute. ¡Ainbesteraño jo zituan Martin'en eriotz txaŕ onek!

Deba'ra joaten zeranean, Itziaŕ-alboko menditxo onen izenaz norbaiteri galdetzen ba-diozu, oŕela erantzungo dizu oraindik ere. Ez dezu, alabaña, izen oŕen soŕkun au dakinik aŕkituko agian. Oŕa, ba, nik, irakuŕle, nere aitonaren ezpañetatik jaso nuan bezelaxe, zuri edestu. Zuk ere zure semeei, gure auŕekoak neguko gau otsetan sutondoan oi-zieten eran, edestu zayekezu, eta ipiñiaz gañera, gizona bere biotzeko griña ta jas okeŕei alik laisteŕen jaŕki beaŕ zayela, ayen mendean eta moŕontza lotsagaŕian bere burua ikusi nai ezpa-du, ikasiko dute.

EŔAMON GUDARIA

I

Etzatoŕen belakuan gure mutiĪa. Zortzietako emen zala gaztigatu du, ta bederatziak joak diralarik, agertzen ez. ¡Etxe artako iskanbiĪa ta naspiĪa! ¿Nork ixilik eta geldik euki-azi gau artan umeak? ¡Izan ere maite zuten, ziñez, beren osaba gudari ura!

Basetxeko leyoetan bai-dago norbait zazpietatik-ezkero eŕiko bideari begira. ¡Amaika aldiz bide-auts-aŕtean gizonen bat agiri dala-ta, umeak ekaŕi dituzte leyoetan pozaren pozaz etxeko guziak! Ta ¡zenbat bider berak beren buruetan daukaten ura dala ere ziñiztu! Batzutan, baña, zaŕagoak dira bera dala-ta bera dalari ekiten diotenak, andik unetxo batera bera ez dala-ta, atsekabetzeko!

¡Au ludia! Amaika aldiz uste oi degu begiak dakustena, baŕuan biotzak izatea nai lukena, dala! ¡Bai dala egia, gizona itxaropenez bizi dala!

Bañan amaŕak dira iya, ta ez da iñondik agertzen. Ama batezere asi da keska gogoŕetan. Etoŕtzen utzi ez ote diote, bidean zerbait gerta-

tuko zitzayola, ta abaŕ..... Ama-biotzak bakaŕik esaten dakizkin onelako beste maitasun-keskarik asko. Alpeŕik dira semeen zergatiak eta onuak amaren biotz-nastu ura baretzeko. Askotan guziei bayetz esan-aŕen, biotza ezetzean dauka. Ezin edestu (kontatu) añakoak dira etxe artako izketak, iskanbila ta zarata.

Zakuŕaren «zaunga» zoliak eta «bera da, Eŕamon» ziotela leyotik zetoŕzten bi gaztek, bat-batean baretu zuten itxaso uraxe. ¡Ango poza ta alaya sukaldean bera ikusi zuteneanl Zeoŕek, irakuŕle, sumatu dezakezu eŕaz. Ogei urtedun gazte trinko bat da bera. Sendoa bai, baña bere arpegi orixkaren ezuŕ ayek argiro dagerte lenago izan dala orain baño luzeagoa, gure gizon baseŕitaŕ geyenen erara; bere begi beltz-zoliak adierazten dute, bere baŕengo almenituŕia; bere ibilera, begirakunak eta izketak, beŕiz, gizon on, zintzo bat dala diote. France-gudarien janzkiz datoŕ jantzita. Ta guda-zelaitik datoŕela ere asmatzen ez da gaitza.

—Ongi makaldu aiz, motel, dasayo bere anayak esku bat gudariaren sorbaldan jaŕi ta begiz-begi oñetatik bururaño begiratzen diola.

—Ta pozik onela natoŕkizutenean... Antxe...

—Bai, orixe—dio amak eŕdi negaŕez—. Emen jaŕiko zaigu ongi. Exeri adi, nekaturik etoŕko itzan-eta. Ta neskameari:

—Miren, jaŕi zan maya len-bait-len, ao zabalik begira egon gabe; gero ere gauzok entzungo ditun, bai.

Batek galdera bat, besteak beste bat, orain ume auei muxu bat eman, gero bestea bere istaŕ gañean jaŕi, etoŕi zan apaltzeko garaya.

Apaltzen ari diran bitaŕtean, gudari gazte auxe nor dan eta zer dala-ta guda-gogoŕetik

datoŕen eta noiz-arte, esan nai dizut, irakuŕle maite oŕi, jakin nayaz eukiko zaitut-eta eskieŕ, onezkero.

Labuŕdi'ko basetxe batean gaudela igaŕiko zenion, beintzat, ta gudari au basetxe onetako semea dala ere baita, Ama iya larogei urtedun amona gordiña; seme zaŕena ta bere emaztea bost semekin eta gure gudaria bizi dira bertan.

Orain aldi asko eztala, gure oraingo gudari au, neskametxo bat eta bi moŕoi, eta ama bizi ziran basetxe auetan, emendik gertuko beste basetxe batera ezkondu bai-zan beste anai ori.

Zoriontsu bizi ziran, lana ugari-zegiten-aŕen. Ta egin beaŕko. bere asabaen etxe ura aŕtu zuten eran, beren ondorengoei eman nai ba-zioten. Ikuĺuan bi idi ta bost bei txokoŕ bikin, baso bat, sagaŕdi bi, belaŕdi, landa, zelai ta baratzak etziran lanik gabe eukitzekoak, beintzat. Bañan ¿zer zion gure Eŕamon'i goizean goiz jeiki ta beyak jetxi-ondoren egun osoan eguzki-gaŕtsupean, izeŕdi patzetan lanaren lanaz ekiteagatik, eguzkia mendi-atzean saŕturik « txioka » txoriak beren kabietan alaiki zijoaztenean, basetxe-ataŕian bere Sorkunde maitearekin itz-maitekoŕak egin al ba-zituan?

Soŕkunde neskatil lirain-langiĺe auxe zan, gure Eŕoman gaztearentzat ezik, basetxeko gure etxekoandre zaŕarentzat ere ezti-ituŕirik bikaiñena, beren egin beaŕ latz ayetan. ¡Amaika bideŕ

ama-semiak poztu ziran, laisteŕ-bai-laisteŕ, basetxe artako andrea egiña ikusiko zutela, gogoraturik!

Ezkontza auxe antolatu-ondoren, guziok egun atsegintsuaren zai zeudela, ustekabean, Europa osoa sakabanatu zuan guda zorigaiztoko ura soŕtu zan eta, sendi arentzat atsegin-eguzkia itzali zan, ludian geyago ez ikusteko.

Semea eraman zuten amaren altzotik, ama, biotzik gabe ta basetxea beso ta berorik gabe utzirik. Ez zaitut nekatu nai, irakuŕle, amaren negaŕak eta atsekabe gogoŕak ziaro edestuaz. Ba-dakizu-ta, ama biotza zer dan, ta ori aski dezu, ama zaŕ aren naigabeak uleŕtzeko (entenditzeko).

Eŕamon juanda zortziren bat egunera, bere amaren negaŕaz eta aŕenaz kupiturik, bizi zan basetxean beste basetxetaŕ azkaŕ batzuek utzita seme zaŕena amaren ondora etoŕi zan. Amak ez bai-zuan iñolaz andik aldendu nai, an il beaŕ zuala bere auŕekoak bezelaxe sendoro ziola.

Ala ere etziran amaren biotzean ilunpeak ezeztu. Bañan ara nun egun batean bere ezagunik askoren il-izpaŕik geyenak zetoŕzkion aldian, odola, eriotza ta gosea bazteŕ guzietan ikusten zuanean, laisteŕ bere seme zaŕen ura ere agian kendu ta eramango ziotela, ta bere gurasoak ainbesteko maitasunez utzi zioten basetxe alai uraxe ba-zetoŕela betiko luŕera etsi zuenean,

« amona, dio ilŏba batek, osaba Eŕamon'en idaztia ». ¡Ba-zituzten bereak zeintzuk ziran ederki ezautzen! ¡Biotzak, askotan begiak baño obeto ikusten bai-du!

Katzela ilun-ilunean, aldi asko aŕgirik ikusi gabeturik, dagonaren biotza alaitu ta poztu oi dan lez, bat-batean ate ta leyoak irikirik eguzkiaren aŕgiak osoro jotzen dioenean, alaxe poztu ziran idazki ura irakuŕi-ostean ama ta etxekoak ez eziz auzoko guziak ere.

Ara zer zion idazkiak :

« Ene amatxo maite-maite ori, aguŕ : Alaituko zaituztela uste det gauŕ nire leŕo abek. Ongi gudan ekin dedalako ta makal-xamaŕ aspalditxo onetan nabilela-ta aurtengo gabon-urteberiak igarotzera, etxera juateko baimena eman didate agindariak. Il onen 7'an irtengo naiz emendik. Beraz 10'rako oŕ nagokizuteke.

Aguŕ, ordu-aŕte. Ez aztu, Soŕkunde alik laisteŕen jakiñan gañean jaŕtzia.

Zure seme maite maitea—*Eŕamon*. »

—I..... Josebatxo, dio amonak lenen aŕapatzen duan ilobatxuari, oa len-bait-len Soŕkunde'ren etxera ta..... nik esan diatela belaxe etoŕtzeko. ¿Bai otedakik nun bizi dan bera?

—¿Ez, zera? Amaika goxo jan ditut bertan Soŕkunde'k berak emanda.

Ta mutil-koskoŕak bideari laisteŕka eman zion bitaŕtean amonak gure Zeruko Amaren irudi baten auŕean belaunikaturik, begietatik negaŕ-malko gozoak zerizkiola, eskaŕik asko egin zizkion ta, aŕen, ta aŕen, ez zezatela bere albotik geyago kendu eskatu zion bere Ama altsuari, umeak eskaŕen bat bere amatxori eskatu oi dion bezelaxe.

¡Etziran belakoan juan egun ayek! ¿Nork esan ama onek 10'gaŕen egun uraxe etoŕi-aŕte bere buruan eta biotzean zerabilzkian asmo ta oldozkunak? Etsi zuan osoro, egueŕietako bialtzen zioten-ezkero etziotela bere bazteŕetik eramango geyago. Bera ama zaŕ ura nola utzi zuten semerik gabe jakiñik eskieŕ zekaŕkiotela..... Gañera, ainbeste guda-mutiłen-taŕtean ¿nolaz bere semetxu artaz oroitu? ¿Zertako zuten ostera? Bost ajola zitzayoten Eŕamon'engatik... Basetxean eukiko zuan, ba, ta betiko. Soŕkunde ta biok ezkonduko ziran ta il-aŕte beintzat zoruna izango zan.

¡Zer dan ona izanik, guziak ere bera bezelakoak dirala ustea! Ziñez, uleŕkaitza zan gure amonarentzat, ainbeste ama semerik gabe gosiak eta negaŕez uzte ori!

II

Gudako estutasun, neke ta lanak utzita etxean lasai, nai zuan guzia egiten bere burua ikusirik

nai ta nayez nabaitu beaŕ zuan gure gazteak bere biotzean, lotan izandako amets zoroen bat, esnatuta oroiturik, nabaitu oi dan alako oi ez bezelako biotz-zimiko atsegintsu bat.

Ala baña, etzegoan bere etxe artan lenengoz eta azaletik bakaŕik begiratuta, uste leiken bezin alai ta poz-keskaren aŕak zulatu oi zion biotza. Bere poz, toki zoragaŕien bat nai ta nayez utzi beaŕ duan bidezkariaren antzekoa zan. Bazekian bere zorunak etzuela asko iraungo; ikusten zuan, ostera, bere amak zeukan poza, ta poz onek berak geyago, sakonago zulatzen ta puŕukatzen zuan bere biotza. Ta ¿nolaz ez bere ama ta bere Soŕkunde zoro egiñik ezkontza antolatzen ikusirik, iñoiz basetxetik ez alde egiteko etoŕi zalakoan-edo? ¿Noletan maite ayei, ba, adi-erazi alpeŕ-alpeŕik zebiltzala, ondaŕtza igikoŕan jauregi edeŕak egiten, ezin ziniztu-azi bazien iñolaz?

—Ez Eŕamon, ez esan oŕelakorik. Biali autenean betiko biali aute. Beira, ez dizkitek asko biali Laŕzabal'ko Iñaki ta Lekunbeŕi'ko Martin. Sariz i bezela bialtzen dizkiteken guda-mutiłak betiko biali oi-dizkitek. Utzi yok, ba, Eŕamontxu ire leloari ori gaxotasunak edo emen ongiegi ire burua ikusteak gogoratzen dik-eta.

Au zan gaxo ayen betiko erantzupena. Besterik beaŕ etzutela zeritzayoten Eŕoman'en zeŕgatiak ezezteko. Augatik gaztea ixilik uzten zu-

tela ikusirik beren iritzian sendoagotzen ziran, gaizki dagoan gaxoa, oraindik dauzkan indarpizarak nabaituta, gaxotasun artatik irtengo dala uste oi duan bezelaxe.

Igari zenezakezu, ba, irakurle aizkidea, zer nolako guda gaitza zekaren bere baruan gure gudari gazte onek. France-zelayetan utzi zuan odoltsu ura, aldizka, eztiagoa esten zuan. Eramon'en oraingo guda gaitza au noiz-edo-noiz, egiz eta barenez norbait maite izan zuanak, osoro ta argiro ezautu ta usmatu lezake, ez beste iñork. ¡Amaika bider ikusi zuten basetxeko orma zarak Goruntz begira negarez!

Ziñez, emen beran zuzen-biderik bere zoritxarak etzuala etsi zuan. Noruntz, Goruntz ezik, joko zuan, ba, gizajoak? An daude ezti-ituriak ta arkitu zituan. Gure gaztea naigabe-tartean zorunduna zan.

Ziñizmen bizidun gizona zan bera gudara juan baño lenago ere, euskalduna berez, odolez dan lez. Argatik gudan, eriotzarekin buruka gogorean gau ta egun ibiltze arek ziñizmen au biziagotzea ez da aritzekoa, gudan ziñizmen gabekoak ziñizmendun sari askotan egiten diranean. Ziñizmenak, Jaungoikoarekiko maitasuna sortzen du, ta maitasun onek eztia ta gentza (pakea) biotzean. ¡Bai-zuala argiro ulertu norberaren buru-eskeintzak azal-gogorpean daukan mami gozoa! Ezautu-edo zuan iruak ez zi-

tezkela ludian zoriontsuak izan agian. Goyan bai-beintzat.

Bañan ez uste burua beeratuta ezer egiteko gauza ez ba'litz bezela, egun osoa otoitzetan-edo igaro oi-zuala. Beste etxekoak ainbat lan egiten zuan bai ikuluan beyak jeisten eta azpiak beŕitzen baita landan, atxuŕari ta goldeari ekiñaz gogoŕ, ere. Edozeñek usteko zuan etsi zuala basetxean ta betiko bertan egon beaŕ zuala-ta lanean-zegila.

¡Abek bai-gizonok, irakuŕle, beren baŕengo naigabeak iñoŕtxok ere nabaitu gabe daramazkitenok!

Lanean ari zala, alabaña, bein baño geyagotan oldozkun au bururatu zitzayon bere bizikera zuzendu nairik: «Iges-egin zak, motel, Napaŕa'rontz ala Gipuzkoa'rontz». Baña belaxe beste oldozkun batek esan oi zion: «Eta ¿lotan al-zeudek France'taŕak?» «Ta ¡ze aŕano! iges-egin al ba-ukek ere, zertako egin ire maite abetatik uŕun eta agian betiko aldenduta bizi izateko, ala?» «Bai, zion ausaŕki gure gudariak, nire maitetxoekin edo bestela betoŕkit eriotza...» «¡Igesirik ez!...» Orduan ¿gudara, eriotzara?... ¡A! oldozkun zital ori! ¿Nork esan bere biotz artan egin ituken zatitze ta laŕutze izugaŕiak? Izan ere. ¿Nork obeto jakin zezaken zer zan gudara juatea? Bañan au etzan, ziñez, gogoŕena izango beretzat, eriotzaren belduŕa galdu zan-

eta, beste bi ayek, maite-kutun ayek, zoritxaŕaren atzapaŕetan, negaŕez bera juanda, bera ilda, ez ikusi-ezkero.

¡Bere eriotzak, maite duanari on pikoŕik ez, zoritxaŕa bakaŕik baizik dakaŕkiotela, il baño lenago argiro au ikustea, maitale zindoarentzat ziñez dan aztuna ta minkoŕa!.....

Goiz edeŕ bat zan. Aŕatsean luŕ gañera erori zan eduŕa eguzkiak bere muxu beroz urtu nai zuala zirudin. Gutxitan neguan izan oi ditugun goiza zan gero ura. Etzan ortze zurbiĪan odei bat ikusten. Goiko urdiñak berak ere urdiñagoa zirudin bestetan baño, luŕeko eduŕa ta zugaitzen oŕi-ezagatik geyago dirdits-zegielako-edo. Eguzkiak bazteŕ guzietara alaya, poza ta bizitza zeraman. Baña, zelai eta bide-bazteŕetan igarturik eta ausita ba-zeuden loretxo batzuek, zugaitz aizeak luŕera boteak ere bai basoan, luŕetik zoritxaŕak iges-egin etzuela gizon zoroei adi-erazi nairik bezela.

Bederatziak-edo ziran kabitik lenengo aldiz pozez egaztu oi dan txoriaren antzera, Soŕkunde Eŕoman'en basetxera «egun on» esanaz saŕtu zanean.

—Izan naiz apaiz jaunaren etxean—esan zuan belaxe.

—¿Bai?—dasayote ama-semeak—ta ¿zer esan din?—amonak jakin-nayaz itotzen dasa-

yo—. Asko dakiena den gero bera ta bere esanak bete-ezkero.....

—¿Zer esan didan? Ez naiz ez, belakoan esan gabe egongo. ¿Ezetz asmatu, Eŕamon?..... ¡Ja, ja, ja!..... Esan zak gutxi-gutxiena usten dekena ta asmatuko dek.

—Ta ¿zer esan din, neska? esan zan lenbailen, esan zion Eŕamon'ek artega-xamaŕ.

—Ara, ba. Deyak lenbailen esateko, ta ezkontza noiz izan genezaken jakiteko netoŕela esan diot zerbait esan beaŕ-ta. Baña nik beste zerbait jakin nai nuan batezere. Amona, zuk ba-dakizu zer. Alegia, zer usten zuan, Eŕamon beŕiz deituko zuten-edo ez.

—¿Ta?

—Onezkero deituko ez dutela.

—¿Bañan ez aldin esan zergatik ori uste duan?—galdetu zion mutīlak alako gaiztokeri bategaz.

—Bai, īlabetea juan dekela-ta, deitutzezkoetan onezkero deituko ziatela. Ez, ba, beldurtzeko, ta lasai ezkondu giñizkela, ez autela-ta eramango onezkero.

Bi emakume on ayen adimen argalak ase ta betetzen zituan zergati onek, Eŕamon'ena len zeuzkan asmo ta uste īlunez utzi zuan. Bai-zekian-eta berak, apaiz zaŕaren zergatia ura izango zala egikoŕa agian aintzeñeko guda ayetzaz,

ez ordea bere begiak ikusi zuten ikaragarri ta zakar onetaz.

Apaiz au napara zan, Karlatarén gudan ibilia. ¿Noletan bizkarean zeuzkan urteaz eta Karlatarén guda beri besteik etzuela, oraingo onetan zerabilzkiten asmo ta eginkizunak ulertu zitzaken? Ez da, ba, aritzekoa, orain guri paregin-azten digun zergati au esatea nexka gaxo ura nondik-edo-andik poztu ta birtu nai-ta gañera.

Augatik, ez da esatekoa Sorkunde'ren alaya ta amonaren poza. Apaizaren itzak egia zesatela, ayentzat eguzkia baño argiagoa zan. Eraza bai-da norbera bere usteetan sendotzea. Etzuan Eroman'ek, ostera, ayen pozik baruan, areistian esan dizudanez; alabaña bere arpegia bakarik ikusita edozeñek beste bi ayek ainbat alaitu zala apaizaren itzez, uste zezaken. Ainbesterañokoa zan edera ta ona gure gaztearen biotza.

Alaz guziz ere, egia Sorkunde'ri nolabait agertu nairik-edo esan zion :

—Etzakiñet zergatik, baño laister alargun aizela iruitzen zayan. ¿Zer nai den, neska? Ori esaten zian biotzak.

—Utziyok, mutil, biotzari, gezurik asko esan oi dizkik-eta biotzak.

—Egia..... Bañan, zoritxarez, egi aundiak ere esaten dizkin gero.....

Zakuŕaren « zaunga » biziak eta bi atejokada sendok bi ezkongayen izketa au bukatu-azi zuten. Au ta eŕi-zaya (aguazīla) etxe-baŕura saŕtzeak aski izan ziran arpegi alai ayetan naigabearen atza ageŕtzeko.

—Udaletxera (Ayuntamentora) gaztigatu dute —esan zien eŕi-zayak egun onak eman ondoren—Eŕamon Bourdeax'ko gudari-gaxotegira gauŕ bertan juateko, ta au zuei adi-eraztea biali naute. Gauŕ aŕatsaldeko lautan egon, ba, udaletxean, Eŕamon.

Emakumeak negaŕari ta deadaŕari eman zioten bitaŕtean « Jauna esan zuan Eŕamon'ek belaunikaturik eta Goruntz begiak negaŕez jasorik, egin bedi zure naya ».

III

Eŕoman'ek uste zuana, zoritxaŕez, gertatu zan. Gaxotetxera deitzea gudara deitzera bezelaxe zala usten zuan. ¿Nola ez asmatu gudako gauza bai-zala esango ziotela gudari-esagīleak? Amaika ta amaika ezautu zituan, aŕanopola, guda-tokian bera baño makalagoak.

Ez zaitut, irakuŕle, nekatu nai etxe artan izan ziran negaŕak, laztanak, muxuak edesten, aguŕ īlun ura egin zanean. Edestekoa ez da-ta. Gañera zeoŕek nik edestu dazatzukedan baño obeto dusmakezula, deritzat. ¿Ez al-dituzu iñoiz egiz

maite diranen aguŕik ikusi ta entzun itxas-ontzi edo bultze-ondoan? Aguŕ oyei, ba, ezaŕi ezayezu, oean il-zorian dagonak bere baŕengo maitetxoei egin oi dien azken-aguŕa ta gure Eŕoman'ek aŕtsalde aŕtan bere biotzeko ayei egin ziena, oŕduan argiro duleŕkezu (entenditu zenakezu).

Etzan gure gudariaren eŕian bultzirik. Au dala-ta, oñez joan beaŕ izan zuan bere eŕitaŕak, gazteak beintzat, oi zuten lez, Bourdeaux'erako bultzia aŕtu zezantzat. Udaletxeko batekin zijoanaŕen etzuan itzik egin bide osoan. Eldu zan geltokira (estaziora) ta laisteŕ etoŕi zan bultzia (trena) ke-beltza zeriola, gogoa eramatera datoŕen eriotzaren antzera. Au zegoan bultziaren zai, beste eŕitxoetako gudari-talde bat, ixilik, beren buruekin oldozketan, naigabe-zamapean daudenak egon oi diran lez. Guziok bultzi-guŕdi batean saŕtu zituzten iltokira deramazkiten abereak beselaxe.

Zarata ta abaŕ izan zan antxe orduan ugari.

—Aguŕ, Martin, idatzi, e? maiz-maiz.

—Ez aztu gero otoitzetan nitaz, ama.

—Ez galdu, beintzat, Karmel'go gutuna, ta beti gudan ba-dakik, jaŕita daukakela saŕtu.

—Mirentxu'ri ez aztutzeko nitzaz. Gorantziak guziei.

—Aguŕ, aguŕ... Bañan, ama, ez egin negaŕik belaxe emen naiz ta beŕiz. Laisteŕ bukatuko dala, diote, guda-ta.

—Aguŕ... Ondo bizi...

—Gorantziak Iñaki'ri ta...

—Bosteko ori, Kepa... Ikusi aŕte... Aguŕ... Aguŕ...

Ta abaŕ, ta abaŕ.

Jo zuan bultziak txistua ta ibiltzen asi zan poĪiki-poĪiki, azkeneko aldiz muxu ta laztanak ematen bidaztiei utzi nairik bezela.

Laisteŕ-bai-laisteŕ beren begietatik eskutatu zan geltokia ta berekin, beren maiteak ere. Ta geyenentzat betiko.

Jatoŕkiz euskalduna alaya ta jolas-zalea danaŕen, etzerakiten gudari gizajook jolas aundirik egun artan. Batzuk leyotxoetatik begira, baña beren begien auŕetik igaro oi ziran toki alaiedeŕik nabaitu ere gabe, beren begiak beste zerbait ikusiko ba-zuten bezela; bestetzuk gorantz eta berantz begira beren buruekin izketan bazeuden lez. Guziok itun, oldoztun...

Belaxe igaŕtzen zitzayen naigabearen eztenak zulatu zitula beren biotzak, ta ori guzietan, baita beren baŕengo izkanbiĪa ixiltze-aŕen-edo itz eta paŕa-zegiten bat-edo-besteen arpegietan ere. Izan ere, berez gaiztoa ta aizuna izan beaŕdu batek ziñez arpegian eta egokeran baŕengo naigabe ta alaya nolabait ez azaltzeko. Eta ayek, gudari euskaldun oyek, onak ta iñor atzipetzeko gauza etziran gixajo batzuk ziran zorionez.

Gure gudari Eŕoman Bourdeaux-arte eriotzaz

gogaltzen juan zan. Argi-argi uleŕtzen bazuan etzirala iruok geyago ludian ikusiko. Ta gogorapen onek naigabetzen ba-zuan ere, laisteŕ Goyan arkituko zirala oroiturik iñoiz baño atsegin-ezti gozoagoaz eztitzen zitzayon biotza. Ta len-bailen iruok iltzeko naya bizi bat erako oroipena nabaitu zuan, bere eŕayetañoko guzia poztten zitzayola era berean, ludian ezin iritsi zuten atsegiña, an arkituko zutela, bizi-biziro orduantxe ikusiko ba-zuan bezelaxe.

Itxaropena azken-azkena ludian galdu oi duela gizonak, esan oi da. Ta egia da ziñez. Naigabe ta atsekabe zoŕotz ayen-aŕen, etzan itzali gure Sorkunde ta amonaren biotzetan argi au oraindik, oŕegatikan.

—Izan leike, esan oi zuten, izan leike oraindik gaxo dagola-ta beŕiz guganontz bialtzea: izan leike gudara eraman-aŕen ez iltzea: ¿gudan guziok iltzen ote-dira, ba? Orain-arte Jaungoikoak bizirik daukanean, guretzat-edo daukagu, iruok zorundun izan gaitezentzat. Gañera guda laisteŕ bukatuko dala diote guziok. Amona; ez gaitezen, ba, gogauldu, Goikoa'k guzia lezake-ta. Otoitz dagiogun, ba, egunoro, eriotzatzapaŕetatik gaizkatu ta gureganatu dezantzat.

—Bai orixe. Gure onerako baldin ba-den beintzat etzigun ukatuko. Guazeman orain bertan eŕukizko Amaganontz.

Eta Miren-irudiaren auŕean belaunikaturik

otoitz-zegiten bi emakumeak sarṫzera zijoan eguzki odoltsuak beren arpegi negarṫsuak jotzen zituela. Ta garai artan bertan ere Eŕoman otoizka ari zan Miren'eri bere bi ayexen aldez, arẽn, Bera beren atsekabean eztugai osoa izan zitza-



yen. ¡Makiña bat aldiz auŕerontzean ere, beren otoitz eta oldozkunok beren Ama zamuŕ arengana juan oi ziran! Iruok antxe beren kabia jaŕi bazuten lez, antxe poztu oi ziran, antxe beren negaŕ-malkoak legoŕtu ta antxe beren ilunpeak aŕgitu.

Eŕiko apaiz zaŕ on ura ere, an zuten bi ema-

kume goxo ayek maiz-samaŕ bere itz Jaungoikozkoaz beren biotzak eztitzen.

—Aŕen, jauna, etoŕi maiz-maiz nire etxera, esan zion Eŕoman'ek bere azken-aguŕan, etoŕi biotz zaurituak sendatzera, ilko dira-ta bestela. Ta ni ere erailko nau nire bi abek ain iĩun bizi dirala jakite-utsak. Izan bedi, aŕen Bedoŕi, bi zauritu gaxo aben osalaria. Au da, jauna, nire azken-eskari bakaŕa.

Ta ¡bai ederki bete zuala apaiz zaŕak, gudamutil gizaxoaren nai txalogaŕi auxe! Etzan asterik igaroko bi aldiz bederik etxe itun artan sartu gabe. Ta saŕtu oi zan bakotxean zeruko aingeruen bat saŕtu zala, ez beintzat gizonik, zirudian. ¡Alakoak ziran, izan ere, bere itz eztitsuak! Ta ¡aren esateko era egokia! ¡aren biotz-baŕengo maitasun sutsua ta gaxoekiko eŕukitasuna!

Augatik, irakuŕle, etzera aŕituko esaten badizut Eŕoman etxe artatik iŕten zala iĩabete ta erdi igaro baño len, ango lenengo negaŕ gaŕatz ayek ezeztu zirala, eta atsekabe-egazti beltza andik egaztu zala esan zeikela gezuŕik esateko belduŕik gabe. ¡Ainbestekoa zan etxe artako gentza (pakea) ainbestekoa eramankizuna! Negaŕ bai-zegiten oraindik. ¿Nola ez galdu zutena, galduta? Bañan negaŕok, gozoak ziran ziñizmen bizidunarenak lez. Negaŕ bai-zegiten. Bañan Goruntz, Jaungoikoaganuntz beren begiak jasoaz. Naigabetuak zeuzkaten beren biotzak. Bañan

maite zuten beren naigabea, Goikoak bialia zalako. Etzan etxe artan, «Bere nai deuna egin bedi»; «Berak daki zer dagokigun»; «Gure onerako ba'litz, bafia Jauna». «Berak eman zigun, Berak kendu digu. Egi bedi bere naya»; ta onelako beste itz edeŕik besteik entzuten.

Apaizaren bidez etxekoen ta Sorkunde'ren egokera opagaŕi au jaki zuanean ezin esan añakoa izan zan bere poza. Ez bai-zuan aspalditxoan ori besterik nai. Au dala-ta lenago eriotzaŕi belduŕik ez ba zion, orain zerk naigabetu zezaken, ba, auŕeratzean? Lenago, bere maitetxoen egokera negaŕgaŕiak naigabetzen etzuan, ala?

IV

Eguzkia saŕtzera dijoa odei goŕiz inguraturik. Txoriak, txioka bai-dijoaz beren kabietara, iluna ta ixildasuna beste aldetik lo-artzera dijuan ludira, datoŕzten bitaŕtean.

Guda-zelayan ez du aŕatsa eldu danik ematen. Ango su ta zalapartik itzaldu ta ixildu-aziko dituan gauerik ez da. Gau dala, eguna dala berdin. Ez da au odola, eriotza ta goŕotoa besterik.

Besoan gurutze goŕi bat duten gudari batzuk gelditzeke ari dira azken-gudaka gogoŕa bukatu zanetik, zaurituak eta ilotsak oetxoetan apaiz ta sendagilerik asko dauden landa zabal batera ekaŕtzen. An osalariak egiten die zaurituei le-

nengo sendatze negaŕgaŕia : an apaizak ilotzen aldez dagizkite ilen otoiz itunak. ¿Nork esan emengo kaŕesi ta deadaŕak? ¿Nork edestu ikuskizun onen ituna? Emen giza-gorputz bat beso ta bururik gabe; an gizon-aragi-goŕi-puskak; aruntzago beste guda-mutil bat oñik gabe deadaŕka. Ez da iñungo gaxotetxean iñoiz ikusi emen ainbat zauritu gaxoagorik, ez da entzun iñoiz deadaŕ ta kaŕasi negaŕgari ta itunagorik ere.

Atoz nerekin, irakuŕle ori, toki zoritxaŕeko auetara, ea il-diran edo il-zorian dauden guda-mutil gaxo aben-aŕtean zure ezagunen bat ikusten ote dezun.

Ez da ziñez, gauza eŕaza abek ezautzea. ¿Gizon-antzik ere bai-ote dute gero geyenok. Eta zenbat orain 24 ordu izango ziran mutil lerden-indaŕtsuak? ¡Ai guda, guda gaizto ori, bai-aizela ziñez goŕotogaŕia! ¡Zer dala-ta etoŕi-ote itzan gizonen-artera, ainbeste Aberi ezeztera! ¡Gizonen aŕokeri eroa! ¡Luŕ apuŕ baten jabe egite-aŕen, diru pila bat eukitze-aŕen, ainbeste gizonen eriotza, ainbeste alaŕgunen negaŕak, ainbeste ama zaŕen, ainbeste maitaleen zorigaitzak!

Begira orain oetxo artan dakaŕzkiten bi ayei. Bera da... gure Eŕoman da ayetako bat. Begira aŕetaz bere arpegi zuria. Bai, bere lagun maitearekin batean eriotzak jo du, biok oetxo batean ekaŕi dituzte; biok alkaŕen-ondoan luŕeratuko ere

dituzte. ¡Ainbesterañokoa izan ere zan beren alkaŕ-maitasun berezia!

Edestuko dizut, irakuŕle, beren eriotz edeŕa areago gure gudari euskaldun aren biotza ta kemena ta oldaŕa ezagutu dezazuntzat.

* * *

Azken-eraso gaitza au asi baño egun bi lenoztik bi adiskideok beren azkeneko eguna eldu zala bai-zekitela zirudian. Eriotzaz ta Zeruaz baño itz ez zegiten. Auŕegunean aitoŕtu zizkioten beren bizitza osoko uts-egiteak apaiz euskaldun bateri, ta eraso-egunean indaŕtsuen Ogi Deunaz indaŕagotu ziran. Onela su-leŕora dijoaztenak ¿nola eriotzaz izutu? ¿Noletan atzera egin etsayen su-gaŕ eta b::ltzakada gogoŕenengatik ere?

Gure gaztearen eriotza nola gertatu zan esan baño len zein zan bere beste aizkide ura esan beaŕ dizut, irakuŕle, obeto guzia uleŕtu dezazuntzat.

Eŕamon su-zelayara Bordeaux'tik etoŕi ta andik bi ilabetera bere eŕiko beste gazte bat bera zegoan gudarozte (ejerzito) ber-berara eldu zan. Bere eŕikoa zalako aŕekin ainbesteko aizkideta-suna aŕtu zuala Eŕoman'ek esango dezu, agian. Etzaude, ba, izpidian! Bai-zeuden an berekin beste bere eŕiko iru ta bere aizkideak ziran-aŕen, beste ura añakoak, ez. Beste auxe oso adiskide berezia bai-zuan. Ta bidezko-bidezkoa zan bere

areganako maitasun ura. Gazte au Soŕkunde'ren anaya zan-eta. ¡Aze nolako oldozkunak, batzutan itunak, alayak eta pozkaŕiak bestetzutan eŕne-aziko zizkion gure Eŕoman'en buruan gazteaŕek!

Ez da aŕitzekoa, ba, bi ayen alkaŕ-aizkideta-sun berezia. Ta orain gauzen arira.

Asi zan eraso ta gudaka odoltsua. Verdun-ondoan zeuden Doixtaŕak (Alemanak) uri indaŕ-tsu au nundik-edo-andik aŕtzeko asmo osoan. Gizonak, gizona erailtzeko orain aŕte asmatu di-tuan gauzik erailkoŕenak an zeuden, alde batean eta bestean. France'taŕak ere, ba, zin-egin zuten etzutela iñolaz utziko beren uri sendo ura.

¡Gudaka artako gizon-eroitzea! Nekazariak belaŕdi erosoan itai zoŕotzez belaŕa mozten duan erara eriotzak ebaki oi zituan guda-mutil bulaŕ-tsu ayen bizitza opagaŕiak. ¡Makiña bat euzko-taŕ egaztu ziran egun artan bizitza betikoŕara! ¡Amaika mutil sendo gabe utzi zuan gure eŕi ga-xoa, oŕduan guda zakaŕ onek! Poztu gaitezen, beintzat, Zeruan beren anayen aldez otoiz dagi-tela-ta.

Lubaki (trinchera) bat zaintzen zeuden bi gaz-teak beste euskaldun pīlo batekin. Tokirik zaile-na ta gaŕantzi aundikoa zala-ta zaintzeko eman zien euskotaŕ bioztunei. Arerioa auŕera zetoŕen negaŕa ta eriotza utzirik bere atzean. Bañan eus-kotaŕok gogoŕ zeuden sua ta burnia jauŕtitzen gelditzeke (gelditu gabe.)

Bat-batean suaga-otsa (kañoiaren otsa) ikaragarria entzun zan. Ta euskotar bioztun ayetako

ogei ta bost baño geyago luŕean, batzuk apurtuta, bestetzuk beŕiz, otoizka ta deadarka ikusi ziran. Burni batek buruan jota zeŕaldo erori zan

Soŕkunde'ren anaya ere. Urbiltzen zayo Eŕoman bere lana utzirik eta aŕetaz azteŕtzen du. ¡Bere poza! Bizi da... Aŕtzen du bere besoetan ta oetxoak dauden tokira darama. Bañan ogei uŕats eman-orduko beste suaga da (kañoiazo) bat leŕtu zan lengoko leku bertan ta bi aizkideak erori ziran luŕera, lurber-berak biok biŕindurik. Iriki ziran pitin bat Eŕamon'en begiak eta ezpaiñak eta «Jauna, esan zuan ixilki, Zeoŕek zaindu itzazu... Izan zaitez... beren aita samuŕa». Eta il zan. Bere azken-itzak bere maitetxoen aldezkoak izan ziran. Ayen aldez Jaunari otoizka il zan. Bizi izan zan bezela.

Zauri ta ilotzak biltzera gero etoŕi ziranak bi aizkideen gorputz-ilotzak alkaŕ besarkatzen lez, elduta arkitu zituzten. Ta esan ere bai. «Beti alkaŕekin zeuden bizi ziranean, Donokira (Zerura) ere alkaŕekin juan dira». Ta belaunikaturik otoitz bat egin zuten beren aldez.

Eta bitaŕtean Euskaleŕiko txoko alai batean saŕtzera zijuan eguzki izpi itunak arpegian jotzen ziotela, ituŕian jaboatzekoak egiten ari zan neskatil-edeŕ-basetxetaŕ batek abesti maitekoŕok zabezkian (kantatzen ari zan):

«Nik bai-dut maiteño bat
¡oi zein hura lako!
Ez da tipi ez handi
bai bien arteko.

Begia du edeŕa,
urdin ezti oso,
biotzean saŕthu zaut
ez baizaut jelgiko. »

Ta unetxo batzuk ixilik egonda beste abesti samuŕ auxe abestu zuan. Donokitik jetxitako aingeru edo bere naigabeak abesten ari dan uso apaltxoa zirudian. Ain maitekiro ain lagunki zabeskin (abesten zuan) gaxoak. Negaŕ ez otezegin gero.

« Nik maite nuban kutuna
nire atsegin-zoruna
ibili bai-ta bai-egon
ez dut arkitzen iñiñon.
Bilaka beti bai-nabil
baña da agian nunbait il.

Ibai-ertzetan galdetzen
dut iya ote-den emen.
Batzutan dagit oyua
bestetan, beŕiz, ulua.
Maitea, diyot, nun abil?
baña da noski nunbait il. »

Baña il ez dala, ta bere begiak oraindik ikusiko dutela bere maitetxo ura, biok oraindik zoriontsuak izango dirala guziei adi-erazteko-edo beŕiro ta len baño sendoago beste abesti uraxe abestu zuan :

« Nik bai dut maiteño bat
¡oi! zein hura lako!
Ez da tipi ez handi
bai bien arteko.
Begia du edeŕa
urdin ezti oso,
biotzetan sarthu zaut
ez baizaut jelgiko ».

***

Andik ilabete bira gozoki il zan amatxo zaŕa bere semearekin alkaŕtzeko pozez. Eta eŕazago ainbeste maite izan zuan arekin Donokian alkaŕtzeko-edo gure neskatīla au, beŕiz, monja saŕtu zan lekaimetxe (monja-etxe) estu batean. Bi urte baŕu il zan deunen eriotzaz. Orain noski, iruok Donokian daude emen maite izan ziran baño oraindik bizigo ta obetogo elkaŕ maitetzen.

Eŕenderia'n 1918'gk. urtean.

« ARGIA »'REN IDAZTIAK

IPUIAK

ELURMENDIK euskeratua

Erderaz idatzi diran ipui ta fabularik edefenak, eta ikastetxeetarako irakufgairik egokiena.

BI EŔIAL

GAUŔKO IZKIĽU EDO ARMA

Alfa Samuele Cultrera'k Italieraz idatzi ta Arbelaitz kaputxinoak euskeratutako irakufgaia.

2 PESETA

YOLANDA

Pierre Lhande Aitak egindako irakuŕgaia

2 PESETA

"ARGIA„'ren EGUTEGIA

:1922, 1923 eta 1924

Aráldea

IPUI ZAŔA

Etxanlz'taf Nemesik Idatzla

35 zentimo



2300

FRIDAY